



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

## **PRENTSA-OHARRA**

Ondarearen Europako Jardunaldiak

# **Abellanedako Batzarretxea, 1500. urteko Bizkaia ezagutzeko bisitaldi gidatu baten abiapuntua**

**Abellanedan, 2012ko urriaren 15an.**

Erdi Aroaren amaiera aldera Enkarterria zelakoa zan parte baten ezagutzera emoteko gidatutako ibilbide kulturala proposatu dabe Enkarterrietako Museoak, Sopuertako Udalak eta Enkarturrek, hori guztiori Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituan Ondarearen Europako Jardunaldiak izeneko ekimenaren barruan. Urriaren 20rako antolatu dan jardunaldi horretarako izena emon dagien bisitariiek Abellanedatik eta ondoan dagoan Urrutia torretik abiatuko dira orain 500 urteko Bizkaia gaz lehenengo hartuemonan izateko.

Abellanedako Batzarretxea dagoan tontorretik Erdi Aroko garaiko hainbat eta hainbat eraikin dituan El Carral auzorantz abiatuko da ibilialdia. Torreak, esaterako Garaikoa edo La Puenteakoa, jauregiakaz batera dagoz, esaterako Villakoagaz edo Alcedokoagaz, eta horreekaz batera arean berandukoagoak diran beste eraikin batzuk, erdi aroko gotorleku-izaerea mantendu gurean egindakoak. Antolatzaileek autobusa prestatu dabe lekuok bisitzateko.

Aurreko urteetan lez, Ondarearen Europako Jardunaldiak gai baten ingurukoak dira. Aurtegorako, Aldundiak gure historiaren sasoi laburra baina benetan garrantzitsua aukeratu dau, Erdi Aroaren amaiera. 50 urte inguruko sasoi da —1475.etik 1525.era— aldaketen aldia Bizkaia rentzat, ahaideen arteko burrukaleku izatetik penintsula osoko lekuri paketsuen eta oparotsuena bihurtu zan-eta.

Horren jatorria izan zan Gaztela eta portu flandiarren arteko merkataritza asko handitu izana. Bizkaia bitartekari naturala bihurtu zan, gaztelako artilea iparralderantz eroaten eben itsasontziak bertan egozalako eta burdina eukalako. Merkatalgaiok eroaten ebezan, eta oihala ekarri. Merkataritza-jarduera hori etenbakoa izan zan eta diru asko ekarri eban lurralde guztira, bizkaitarrek bapo gastatu egien. Hazkunde garaia izan zan, aberastasunez eta baikortasunez jantzia. Aztarna asko ditugu ordukoak, Enkarterriaren bihotzera egingo dan bisitaldi gidatu honetan ikusi leitekezanen modukoak.

**ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2012**

**AVELLANEDA-EL CARRAL: ARKITEKTURARI BURUZKO TRATATU BAT**

Topagunea: Enkarterrietako Museoa

Eguna eta ordua: urriak 20, zapatua, goizeko 11:00etan

Informazioa eta izen-emotea: 94 610 40 28/ 94 650 47 50

Plaza mugatuak. Bisitaldia doan izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

### Jornadas Europeas de Patrimonio

## La Casa de Juntas de Abellaneda, punto de salida de una visita guiada para conocer la Bizkaia de 1500

Abellaneda, a 15 de octubre de 2012.

El Museo de Las Encartaciones, el Ayuntamiento de Sopuerta y Enkarterrak han propuesto un itinerario cultural guiado para viajar a la comarca encartada de finales de la Edad Media, dentro de las Jornadas Europeas de Patrimonio que organiza la Diputación Foral de Bizkaia. Los visitantes que se apunten a este viaje al pasado, programado para el sábado, 20 de octubre, partirán de la Casa de Juntas de Abellaneda y de su cercana torre de Urrutia para tener un primer contacto con la Bizkaia de hace 500 años.

Desde la atalaya que representa el conjunto monumental situado en Abellaneda (Sopuerta), los asistentes descenderán al barrio de El Carral, que acumula una sorprendente cantidad de edificios de aquella época. Torres, como las de Garai o La Puente, se combinan con palacios como el de Villa o el de Alcedo, y con otras construcciones ligeramente posteriores pero que tratan de seguir el modelo de la fortaleza medieval. Para visitar estos últimos lugares la organización dispondrá de un autobús.

Como en ediciones anteriores, las Jornadas Europeas de Patrimonio se centran en un tema. En esta ocasión, la Diputación ha escogido un momento breve pero verdaderamente brillante y floreciente de la historia vizcaína: el final de la Edad Media. Un período de unos 50 años –entre 1475 y 1525– en el que Bizkaia pasó de ser una tierra atezada por la violencia banderiza a ser uno de los espacios más pacíficos y prósperos de la península.

El origen de todo ello estuvo en el despegue del comercio entre Castilla y los puertos flamencos. Bizkaia se convirtió en su intermediario natural al ser cobijo de los barcos que llevaban al norte la lana castellana y el hierro local, y volvían cargados de material textil. Esta intensa actividad comercial distribuyó grandes cantidades de dinero hasta en el último rincón del territorio, y los vizcaínos lo gastaban con generosidad. Fue un tiempo de crecimiento, riqueza y optimismo. De todo esto nos han llegado abundantes restos, como el legado arquitectónico que se podrá ver en esta visita guiada por el corazón de las Encartaciones.

JORNADAS EUROPEAS DE PATRIMONIO 2012:

AVELLANEDA-EL CARRAL: UN TRATADO DE ARQUITECTURA

Punto de encuentro: Museo de Las Encartaciones

Día y hora: sábado 20 de octubre, a las 11:00

Información y reservas: 94 610 40 28/ 94 650 47 50

Plazas limitadas. La visita guiada es gratuita.